

NAFARROAKO GOBERNUKO ADMISTRAZIOKO LANPOSTUEN BEHIN- BEHINEKOTASUN TASAREN ETA HANGO EGITURA BUROKRATIKO ETA SEXISTAREN AZTERKETA.

ESPARRUA

Azterketa hau ekainaren 13ko 271/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen plantilla organikoan oinarritzen da (2007ko 85. NAOa, uztailaren 11koa). Azterketatik kanpo utzi dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak, Hezkuntza Departamentukoak (ikastetxeetakoak), Foruzaingokoak eta suhiltzaileenak, izan ere, zerbitzu horien egitura hierarkikoa (osasun eta irakaskuntzako zentroak, foruzaingoa eta suhiltzaileen kidegoa) ez da Administrazioaren ohiko egitura bezalakoa (bulegoburuak, atalburuak, zerbitzuko zuzendariak eta zuzendari nagusiak).

Hori horrela, lan honek Nafarroako Gobernuaren Administrazioako 11 departamentuen (12 dira gaur egun) *administrazio egitura* du aztergai; guztira, 4.169 lanpostu hartu dira aintzat.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA.

Plantilla organikoan agertzen diren 4.169 lanpostuetatik 3.144 funtzionarioek betetzen dituzte eta gainerako 1.053 lanpostuak hutsik daude (%25,26). Erabat lotsagarria da departamentu batzuetan dagoen behin-behineko lanpostuen tasa: Toki Administrazioako Departamentuan %33,06, Kulturen %30,82, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuan %30,03 eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan %30,02.

Horrek adierazten du, lehenik, UPNren Gobernuak utzikeriaz jokatu duela, egoera hau aspalditik datorrelako. Azken urteotako Lan Publikoaren Eskaintza aztertzen badugu, konturatuko gara ez dutela inolako asmorik izan arazoa benetan konpontzeko.

Beste alde batetik, sindikalgintzaren ikuspuntutik begiratuta, Administrazioan dagoen behin-behinekotasun tasa ikaragarria salatzeko modukoa da, egoera horren ondorioz zerbitzuen funtzionamendua kaskarragoa delako, izan ere, lan kontratudunen errotazioak plantillak finkatzea galarazten du (ez dakigu lanpostu huts horietatik zenbat dauden aldi baterako kontratudunekin beteak, horren gaineko informazio ofizialik eman ez digutelako)



eta, horrenbestez, ezinezkoa da gure lanari egonkortasuna eta jarraitasuna ematea.

Egoera horrek, gainera, UPNren Gobernuak zerbitzuak privatizatzeko bultzatu duen politika sendotzeko balio du, lanak enpresa pribatuei adjudikatzeko azaltzen diren arrazoietakoa bat funtzionarioen falta izaten delako.

ADMINISTRAZIOKO BURUTZAK

Lan honetan bulegoburutzak, atalburutzak, zerbitzuko zuzendaritzak eta zuzendaritza nagusiak aztertu dira, baita idazkaritza teknikoak ere, zuzendaritza nagusien maila bera dutenak, kargu horiek baitira administrazioaren oinarriko egituran daudenak (abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea). Horren arabera honela banatzen dira gaur egun dauden 901 burutzak:

- Bulegoburutzak 436 (%48,39)
- Atalburutzak 322 (%35,74)
- Zerbitzuko zuzendariak 100 (%11,10)
- Zuzendari nagusiak/Idazkari teknikoak .. 43 (%4,77)

Egia esateko, burutzen kopurua oraindik handiagoa da, zerbitzu batzuetan (Gizarte Ongizatearen laguntza zentroak, Ingurumeneko zaindariak...) buruzetan ari diren pertsonak, "zuzendaritzako postua" betetzeagatik lansari-osagarria kobratu beharrean, goragoko maila batean sailkatzen direlako eta, horregatik, plantilla organikoan ez da azaltzen karguetan aritzen direnik.

Datu horietatik ondorio hauek ateratzen dira:

- a) Buruak (**901**) plantillako guztirako langileen (4.169) % 21,61 dira. Aurreko leerroaldean adierazitakoa kontuan hartzen badugu, gaur egun lau langiletik batek zuzendaritza karguren bat dauka.
- b) Batez beste, zuzendaritza nagusi bakoitzean bi zerbitzuko zuzendari baino zertxobait gehiago, zortzi atalburu eta bederatzi bulegoburu daude.

BURUTZEN AZTERKETA DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU ETA ZENTROZ ZENTRO: BUOKRAZIA RANKINGA

Departamentu bakoitzean dauden burutzak eta kasuan kasuko langileen plantilla aztertutik, ondoko **burokrazia rankinga** atera dugu:

DEPARTAMENTUA	Langile guzt.	Burutzak	(%)
1.- Industria, Merkat. eta Lana	273	108	39,56
2.- Toki Administrazioa	124	45	36,29
3.- Osasuna	143	44	30,77
4.- Hezkuntza	351	97	27,63
5.- Herri Lan, Garr. eta Komun.	302	76	25,16

6.- Ekonomia eta Ogasuna	691	157	23,05
7.- Lehendak. eta Barne	519	109	21,00
8.- Nekaz., Abeltz. eta Elikadura	384	74	19,27
9.- Ingurum., Lurr. Ant. eta Etxeb.	313	56	17,89
10.- Kultura	292	45	15,41
11.- Gizarte Ongizatea ¹	786	90	11,45

Honatz datu horietatik atera ditugun ondorio nagusiak: lehenbizi, burutzen kopuruari dagokionez, departamentuen artean alde handiak daude, izan ere, batzuetan (Industria –%39,56-, Toki Administrazioa –%36,29-) beste batzuetan halako bi edo halako hiru daude (Gizarte Ongizatea –%11,45-, Kultura %15,41,...).

Beste alde batetik, zuzendaritza eta zerbitzu jakin batzuen organigrama aztertzen badugu, kargudunen ehunekoak lotsaemangarriak dira. Industria Zuzendaritza Nagusian, esate baterako, 76 langile daude plantillan eta 33 burutza daude (%43,42); alegia, marinel bakoitzeko ia kapitain bat. Ondarearen Zerbitzuan (Ogasuna) 32 langiletik 15ek dute burutzaren bat (%46,87). Toki Azpiegituren Zerbitzuan (Toki Administrazioa) 19 langiletik 9k dute zuzendaritza karguren bat (%47,36) eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzuan (Industria) 18tik 9k (%50). Azkenik, Kalitate eta Modernizazio (!) Zerbitzuan (Toki Administrazioa) 5 langile daude plantillan eta 4 burutza (%80) eta Lana Aurkitzeko Zerbitzuan – Industria– 8 langile eta 5 burutza (%62,5).

Zerbitzu bakar batzuetan, aitzitik, egoera guztiz kontrakoa da. Liburutegi Zerbitzuan (Kultura), esate baterako, 138 lanpostu daude, hainbat herritako liburutegitan banatuak, eta 7 burutza baizik ez daude. Zerbitzu horren antzeko plantilla duten beste zerbitzu batzuetan buruen kopurua hamar aldiz handiagoa da, zergatik? Antolaketa arrazoiengatik edo A eta B mailakoei sariak banatu beharrarengatik?

Hori bezain lotsagarria da ikustea, plantilla organikoaren arabera, 55 ataletan eta 232 bulegotan bertako buruaz gainera beste langilerik ez dagoela. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen arabera, atalei “*haien menpeko bulego edo unitateek egiten dituzten lanak koordinatu, zuzendu eta kontrolatzea*” badagokie, nola ulertu, bada, 55 atal egotea menpean inolako bulego edo langilerik izan gabe?

Horren guztiaren ondorioak ondoko hauek dira:

¹ Lehen adierazi den bezala, departamentu honetan burutzen benetako kopurua dexente handiagoa da, langile gehien duten zentroetan (El Vergel, Santo Domingo,...), burutza batzuetan ari diren langileak, “zuzendaritzako postuei” dagokien lansari-osagarria kobratu beharrean, goragoko maila batean kokatu dira eta, hortaz, burutza horiek ez dira plantilla organikoan agertzen.

- a) Nafarroako Gobernuaren egitura hierarkikoan (burutzak eta zuzendaritzak) dagoen hipertrofia begien bistakoa da, alferrikakoa eta justifikaezina baita lau lagunetik bat zuzendaritzan aritzea.
- b) Departamentu bakoitza Taifa erresuma bat da, antolaketari dagokionez. Batzuetan (Industria, Toki Administrazioa,...) burutzen kopurua beste batzuetakoak (Kultura, Giz. Ongizatea) halako bi edo hiru gehiago dira. Horrek esan nahi du Administrazioak lana antolatzeko dituen irizpideak erabat arbitrarioak direla.
- c) Garbi ikusten da Kontuen Ganberak prestatutako txostenean arrazoia zuela (1995/12/4ko txostena: "Nafarroako Foru Administrazioaren Langileen kudeaketa"). Honela zioen: *"Antolaketa egitura –burutzak-ordainketarako erabiltzen da, burutza berriak eta izendapen libreko karguetarako kontusailak sortuz"*. Beraz, organigrama hierarkikoa gehiago erabiltzen da mesedeak egiteko eta soldataren osagarriak emateko, funtzionaltasuna eta arrazionaltasuna bilatzeko baino.
- d) Aipatzekoa da, orobat, foru hauteskundeak egiten diren bakoitzean eta, horrenbestez, Gobernua eta goi-karguak aldatzen direnean, zuzendaritza karguak ugaltzen direla, izan ere, hauteskundeen ondotik kargu gehiago sortzen dira aurrekoak kendu gabe.

PLANTILLAREN ETA BURUTZEN AZTERKETA, SEXUAREN ARABERA: RANKING SEXISTA.

Plantilla Organikoan agertzen diren 3.114 lagunetatik gehienak, 1.681 (%53,98), emakumeak dira; gainerakoak, 1.433, gizonak. Kontuan hartu Plantillako lanpostu hutsak betetzeko kontratudun langileak ez direla hartan ageri. Dena dela, ez lituzkete asko aldatuko emanen ditugun datuak. Beraz, Administrazioa emakumeek osatzen dute, gehienbat.

Departamentu bakoitzaren plantilla aztertuz gero, ikusten da batzuetako langile gehienak gizonak direla (Herri Lanak -%77,98 gizonak-; Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena -%69,49-; Nekazaritza -%57,00- eta Toki Administrazioa -%53,10). Gainerakoetan, ezbairik gabe, emakumeak dira gehienak (Kultura -%72,28 emakumeak-; Gizarte Ongizatea -%69,82-; Osasuna -%68,34-; Hezkuntza -%60,07-, Industria -%57,27; Lehendakaritza -%55,90-; Ogasuna -%50,48-).

Gure ustez, aipatutako horrek badu lotura Departamentu bakoitzaren eduki eta eginkizunekin eta, hein horretan, jendarte honek gehienbat emakumeei esleitzen dizkien zereginekin: pertsonak zaintzea eta artatzea (Osasuna, Gizarte Ongizatea,..), seme-alabak hezitzea (Hezkuntza,..), eta abar. Kontuan izan behar da, orobat, karrera batzuetan emakumezkoen kopurua handiagoa dela eta, beste batzuetan, gizonezkoena ("teknikoak", oro har, gizonezkoenak dira; "gizartekoak" edo "letretakoak" emakumeenak). Beraz,

Departamentu bakoitzaren ezaugarrien arabera, hainbeste gizonezko edo emakumezko daude.

Burutzak sexuaren arabera aztertzen baditugu, berriz, garbi ikusten da zenbat eta gehiago igo eskala hierarkikoan (Bulegoburutzak – Atalburutzak – Zerbitziburutzak – Zuzendaritza Nagusia), nabarmen jaisten dela lanpostu horietan diharduten emakumeen kopurua. Beraz, 3.114 pertsonako plantillan, (%54 emakumezko eta %46 gizonezko) koadro hau ateratzen da:

BURUTZAK	Oсотara	Gizonak	Emakumeak
Bulegoburutzak	386	166 (%43,00)	220 (%57,00)
Atalburutzak	311	198 (%63,67)	113 (%36,33)
Zerbitziburutzak	100	75 (%75,00)	25 (%25,00)
Zuzendaritza Nagusiak	43	35 (%81,40)	8 (%18,60)

Kontu honetan bi datu dira aipagarri. Lehenbizikoa, zuzendari nagusiak eta zerbitzuburuak beti “behatzez” izendatzen direla eta atalburuak eta bulegoburuak lehiaketa irekiaren bidez, teoriarik (salbuespen asko badira ere). Bada, “behatza” zenbat eta gehiago erabili, orduan eta matxistagoa da egitura hierarkikoa.

Bestalde, bitxia da hierarkiaren beheko aldean (bulegoburutzak) emakumeen portzentaia (%57) plantillan dagoenaren (%53,98) antzekoa dela. Gure ustez, burutza horiei ematen zaien lan mailarekin lotua dago (espedienteak tramitatzea, artxiboa, jendea hartzea, kontabilitatea,...). Maila horretatik gora, berriz –Atala, Zerbitzua, Zuzendaritza Nagusia–, eginkizunak antolamendukoak eta zuzentzekoak direnean, burutzak gizonentzat dira, gehien-gehienak.

Bada, Departamentu bakoitzean diren emakume/gizonen portzentaia erkatuz ondoko **sailkapen sexista** hau ateratzen da:

DEPARTAMENTUA	% emakume plantillan	% emakume burutzetan	Diskriminazio koefizientea
1.- Toki Administrazioa	%46,99	%28,95	- %38,39
2.- Kultura	%2,28	%46,51	- %35,65
3.- Lehendakaritza eta Barne	%55,96	%41,51	- %25,82
4.- Nek., Abel. eta Elikadura	%43,00	%32,84	- %23,63
5.- Ekonomia eta Ogasuna	%50,48	%38,81	- %23,12
6.- Gizarte Ongizatea	%69,52	%57,65	- %17,07
7.- Hezkuntza	%60,07	%51,07	- %14,98
8.- Indus., Merkataritza eta Lana	%57,27	%49,02	- %14,41
9.- Ingur., Lur. Antol. eta Etxeb.	%31,51	%27,77	- %11,87
10.-Osasuna	%68,33	%61,54	- %9,94
11.- Her. Lan., Gar. eta Kom.	%22,02	%33,90	+ %53,95

TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA: ESKANDALU IZUGARRIA.

Toki Administraziooko Departamentua nabarmentzen da gehien, diferentzia handiz, txosten honetan aipatu ditugun alde negatibo guztiak biltzen dituelako: bete gabeko lanpostu gehien (%33,06); lehenbizikoa ranking burokratikoan eta bigarrena, sexismoari dagokionez. Gehiago nahi duzue?

L.A.B.EK PROPOSATZEN DITUEN NEURRIAK.

Adiskidekerian, zentzugabekeria eta zabarkerian oinarritutako nahas-mahas administratiboaren aurrean, LABek ondoko hau proposatzen du:

- a) Zehatz-mehatz arautzea edozein burutza edo zuzendaritza sortzeko behar diren baldintzak eta bermeak. Bidezko, funtzional, eraginkor eta premia-premiazkoak direla frogatu beharko da.
- b) Sindikatuek parte hartu behar dute organigrama orokorraren eta Departamentu bakoitzekoaren tramitazioan eta onespenean.
- c) Bulego eta Atalburutza guztiak, salbuespenik gabe (burutza berriak, izena aldatu zaienak, etab.) lehiaketa publiko bidez betetzea, legez ezarrita dagoen moduan.
- d) Berehala kentzea plantilla organikotik administrazio egiturarik ez duten 55 atalburutzak.
- e) Burutza eta zuzendaritzen erdiak (901etik 450) kentzea, administrazio egiturarako gehiegi baitira eta egitura hori, gainera, zentzugabea eta arbitrarioa baita.
- f) Kenduko liratekeen burutza eta zuzendaritzen soldaten osagarriak (281.750 euro/hilean), C, D eta E mailetakoa langileen artean banatzea. Bakoitzari 64,09 euro emanen litzaizkioke hilean.

Aipatutakoa betetzen bada, Administraziooko langile gehienek motibazioa eta errendimendua handituko dira nabarmen eta haren funtzionamendu astuna eta burokratizatua izugarri arinduko da.

